

ETXE MISTERIOTSUA

Kaixo, ni Maider naiz, 12 urte ditut. Donostian jaioa baina orain Zarautzen bizi naiz. Txikia naiz baina azkarra, ez ditut lagun asko baina niri ez zait asko axola.

2013 abuztuaren 4ean joan ginen nire herrira, Obanosera, Nafarroa.

Nire aita, nire ama, nire lagunak, Sara, Juan eta ni.

Maletak autoan utzi eta ...

-Bagoaz - esan zuen nire aitak

-Bidaiarako prest? - nire amak

-Bai, oso prest - Sara eta Juanek erantzun zuten

Ordu bat eta erdi pasa ondoren, azkenean iritsi ginen.

-Azkenean - esan nuen nik.

Etxea bi solairukoa da. Lau logela, hiru bainugela, sukaldea eta lorategia ditu. Berria ematen du, baina orain dela 11 urte eraikia da.

Kalera atera ginen, Sarari eta Juani erakusteko eta bat-batean emakume heldu batek esan zigun etxe misteriotso bat zegoela, gero pixka bat aurrera joan ginen eta gizon gazte batek ere esan zigun etxe misteriotso bat zegoela.

-Ez dut sinesten - esan zuen Juanek

-Nik ere ez - erantzun nion nik

Sarak ez zuen erantzun, berak pixka bat sinesten zuelako.

Gaua iritsi zenean, goiz joan ginen ohera, baina soinu arraroak entzuten hasi ginen.

KRANTX!

-Zer izan da hori! - oihukatu zuen Sarak



-Aaaaaaah- Juanek

-Aaaaaaah, ze beldurra! - oihukatu nuen nik.

Maiderrren aita eta ama beraien logelara joan ziren.

-Zer gertatu da? - galdetu zuen amak

-Soinu arraroak entzun ditugu - esan genuen hirurok batera oihuka.

-Gezurra izango da! - esan zuen aitak

-Ez, benetan - erantzun nion nik.

Bat-batean beste soinu arraro bat entzun genuen.

Danba! Boom!

-Zer izan da hori! - aitak

-Zerbait erori dela ematen du! - Juanek egiaztatu du.

-Azkenean egia izango da jendeak esan diguna! - esan zuen Juanek beldurtuta.

Goizeko 2:33 minutu, oraindik esnatuta geunden, ezin lo hartu.

Hirurak beldurtuta geunden.

Hurrengo egunean beste zarata batek esnatu gintuen, baina oraingoa ez zen etxe misteriotsuena. Oraingoan nire amari plater bat erori eta puskatu zitzaion.

-Zer izanda hori? - Sarak

-Lasai, erantzun nion nik - plater bat erori eta puskatu zaio nire amari.

Aaaaa! Sustoa eman didazu - esan zuen Sarak.

Gosaldu ondoren, kalera atera ginen. Etxe misteriotsura hurbildu ginen. Itxura txarra dauka.

-Zaharra dagoela ematen du - komentatu nuen nik.

-Bai - erantzun zidan Juanek.

Azkenean sartu ginen.

-Aaaaa, zikina dago! - esan nuen nik.

-Ze zaharra den - oihukatu zuen.

Juan bere bideo kamerarekin grabatzen ari zen eta Sara bitartean linternarekin bidea argitzen. Bi solairu ditu, paretak zartatuta daude eta ematen du saguak daudela.

-Aaaa, ze nazka sagu bat! - oihukatu zuen Sarak.

-Eeh Juan, etorri hona, grabatu hau! - agindu zion Sarak.

-Zer gertatzen da? - galdetu zuen Juanek.

-Zer dago? - galdetu nuen nik.

-Eskailera batzuk daudela ematen du! Azpitik zerbait egongo da - esan zuen Sarak.

-Goazen ekaileretatik - esan nuen nik animatuta.

-Bale goazen, baina ez gara asko egongo - esan zuen orain Sarak beldurtuta.

Eskailerak jaitsi eta dena ilun zegoen.

-Beldur naiz - esan zuen Sarak.

-Lasai, eman niri linterna eta zatoz atzetik - esan nion nik Sarari.

Bat-batean Juanek zerbait aurkitu zuen.

-Eee neskak, etorri hona! - zerbait aurkitu dut eta.

-Zer da? - galdetu genion.

-Nota bat dagoela dirudi - erantzun zuen Juanek. Baina bakarrik zati bat dago, beste erdia ez dago - azaldu zuen Juanek.

-Beste erdia aurkitu beharko dugu - esan zuen Sarak.

-Zer jartzen du notan? - galdetu nion.

- "Notaren beste zatia aurkitu nahi baduzue, pista batzuei jarraitu behar diezue" - irakurri zuen Juanek.

-Zein da pista? - esan zuen Sarak.

-Erdia aurkitzeko beste etxe batera joan beharko duzue etxearen misterioa argitzeko.

-Eta non dago etxe hori? - galdetu nuen nik.

- "Joan Elizapea kalera eta lehenengo etxean dago" - irakurri zuen berriro.

-Badakit ze kale den - argitu nuen.

Kalera joan ginen eta lehenengo etxera hurbildu ginen, "GURE AMETSA" jartzen zuen ateburuan.

Etxera sartu ginen, oso handia zen eta berria zegoen. Oso garbi zeuden paretak. Bi solairu zeuden eta gela asko zituen.

-Notaren erdia aurkitu behar dugu! - esan nuen nik.

-Eeeh, hemen dago nota! - esan zuen Juanek pozik.

-Zer jartzen du? - galdetu zuen Sarak.

- "Zoaz bigarren solairura, eta han dago gela bat ate gorri bat daukana. Han sartu eta ikusiko duzue zer den" - irakurri zuen Juanek oso pozik.

Bigarren solairura igo eta ate gorriaren parean jarri ginen. Soinu arraroak entzuten genituen.

-Aaaah zer izan da hori! - oihukatu nuen.

-Ez dakit - erantzun zidan Sarak.

-Lasai, soinu arraro bat izan da, besterik ez! - erantzun zigun Juanek.

Atea ireki eta soinu misteriotsuak entzuten genituen.

-Ze beldurra! - Sarak.

Bat-batean oihu bat entzun genuen.

-MOZTU! Berriro hasiko gara!

-Zeinek esan du hori? - esan nuen.

Gizon gazte bat azaldu zen.

Azkenean soinu misteriotsu horiek, beldurrezko film bat grabatzen ari zirelako ziren.

-Joe, ze abentura - esan nuen nik.

-Ze ondo pasa dugun! - Juanek.

-Hain ondo ez, beldur handia pasa dugun! - esan zuen Sarak.

-Azkenean etxera sartu izan ez bagina, ez ginatekeen pozik joango etxera - esan genuen hirurok.

Astebururik onena izan da, Maider!- esan zuten Sarak eta Juanek.

